



DISKOA

Matxinadarako deia

BIZIKO BAGARA ERREGREEN BURUAK ZAPALTZEKO IZANGO DA ONKI XIN

OKX DISKAK, 2018



JOXI UBEDA GOIKOETXEA

Melodia politak eta askotariko erritmoak, biziak eta dantzagarriak entzun daitezke Onki Xin taldearen lehen diskoan. Samplerrak, scratchak, eta beste hamaika zaratatxo, ñabardura, zertzelada eta xehehasun. Izan ere, taldeki-deek esaten duten bezala, Onki Xin leiho ireki bat da, eta bertatik sartu eta ateratzen dira haize mota ugari, besteak beste, Hegoaldeko haize epelak eta Iparraldeko haize hotzak. Rock, new wave, dance, funk, hip-hop, drum and bass eta beste hainbat musika estiloren ukituak, olerkiak...

Horrekin guztiarekin, matxinadarako erritmoak, melodiak eta hitzak sortu dituzte. Aldarri egin, bidegabekeriak salatu eta borrokarako deia egiten dute. Oro har, mezuak zuzenak dira baina bilatu beharreko mezu irekiak ere badaude. Altsasuko gazteen auzia, Maravillas, euskal presoak, errefuxiatuak, eta beste hainbat gairi buruz mintzo dira, baina bihotzarekin ere bai. Halaber, hitzetan, zenbait erreferentzia literario eta kultural antzeman daitezke: Rosa Luxemburg, Charles Bukowski, Julio Cortazar, Alejandra Pizarnik, Joseba Sarrionandia, Xabier Montoia...

Fer abeslariak eta Zigor DZ disko jartzaileak abiatu dute Onki Xin proiektua, eta grabazio saioetan zenbait kolaboratzaile izan dituzte: Joseba Ponce, Arkaitz Miner, Ibai Ros, Beñat Atorrasagasti eta Lizar Montagut Mendizabal. Grabazioa Peio Gorrotxategik egin du, eta azala eta diseinu lana Ramon Zabalegik.

Fer El Corazon del Sapo, Estricalla, Kuraia eta beste zenbait taldetan aritua da, hardcore, punk eta rock doinuak lantzen, eta Zigor DZ-k, Selektah Kolektiboa eta Esne Beltza taldeetan aritzeaz gain, disko jartzaile saioak egiten ditu, eta gehienbat hip-hop, reggae eta musika beltzean murgilduta ibiltzen da. Haien orain arteko ibilbideetan egindako urratsak eta izandako bizipenak eta esperientziak elkartu dituzte Onki Xin egitasmoan, bide berriak bilatzeko eta bestelako paraajeak ezagutzeko asmoarekin.

Bidaia hasi berria dute, eta zeresana emango dute. Jadanik ematen ari dira. Hasteko, oso disko ona egin dute. Kantak gustura entzuten dira. Indarra, adorea eta kemena transmititu eta kutsatzen dute, gogo eta aldarte onarekin. ●



FER ETA ZIGOR DZ. ARGAZKIA: ONKI XIN.